

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2012ko urriaren 5a. IX. urtea. 2.411. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Orexako pilotalekuan egindako karakterizazioan astebeteko errefusa jaso zuten. I.TERRADILLOS

Hondakin organikoak herrian berrerabiliz

Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea materia organikoa kudeatzeko konpostagailuak jartzen ari da; zabor gutxiago sortzea da helburua 07

Bidegoian eta Albizturren ere berdintasuna ardatz

Berdintasun Planaren bigarren ikasturtea hasi berri dute; aholkularitzaren bidez helduekin nahiz gazteekin egiten dute lan 03

Bigarren eskuko azoka eta eskulan erakusketa, Zizurkilen

Herrira herri mugimenduak antolatu ditu bi ekitaldiak, Zizurkil Goiko Intxaur pilotalekuan eta Iriarte kultur etxean 06

Musika, zinea, txotxongiloak eta antzerkia, asteburuko eskaintzak

Tolosako Bomberenean, Leidorren eta Topic-en izango dira ekitaldiak; gaur 'Goenkale, markesaren erretratua' antzezlanaz ikusi ahal izango da 02

Gaur hasiko dira Amezketako Ugarte auzoko jaiak

Gaur iluntzean botako dute suziria eta igandera bitarte ekitaldi ugari izango dira; igandeko herri kirolen saioa eta gero ingurutxoak dantzatuko dute 03



Ireki atea Zuntzari

15Mb-ko DUOa

+ Finkoetarako deiak, 24 orduz,

16'9

€/hil

urtebetez

Alta (p-e) eta instalazioa DOAN

Helmen handiagoko wifi) n Kable-modema, abiadurak handienarekin, DOAN

Mugikorra gurekin baduzu, Internet zure mugikorrarean DOAN eta BETIND

Orain, mugikorrarako deiak barne

logika line

943 31 86 11

San Francisco, 39 Tolosa



Barrutaileria ofiziala

→ Laburrak**Kilometroak jaiaren lekuko hartzea igandean**

EUSKARA ▶ Etzi, urriak 7, Kilometroak jaia ospatuko dute Andoainen. Bertan hartuko dute, Tolosako Laskorain ikas-tolako ordezkariak, 2013ko Kilometroak festaren lekukoa, eta Laskoraingo kideek herritarrei eskaini nahi diete lekukoa. Horretarako, lekukoari harrera egingo diote, igandean bertan, 19:30ean. Plaza Zaharrean trikilitarietara eta pintxoekin osatuko dute festa, eta herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte.

Osasun sistema publikoaren aldeko elkarretaratzea

GIZARTEA ▶ Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak elkarretaratzea deitu du biharko. Osasun sistema publikoaren defentsarako aste europarraren harira, 12:00etan Triangulua plazan elkartuko dira, *Zure osasuna, beren negoziola* lelopean.

Botarri jatetxeko Txemari Esteban KM0-n, bihar

GASTRONOMIA ▶ KM0 egitasmoaren hurrengo saioa bihar goizean izango da. Sasoiko produktuekin prestaturiko mokadutxoak dastatzeko aukera izango da, eta kasu honetan, Botarri jatetxeko Txemari Esteban ariko da. Onddo naturalekin egindako tartaleta, patata zukuarekin eta baratxuri beroarekin prestatuko du, eta 12:00etan banatuko ditu mokadutxoak.

Oargiren irteerarako izena emateko azken egunak

MENDIA ▶ Datorren asteburuan Gistaineko bailarara joango dira Oargiko kideak, eta astelehena izango da izena emateko azken eguna. 688 69 86 42 telefonon edo info@oargi.org helbidean egin daiteke, eta 20 euro aurreratuko beharko dira, Euskadiko Kutxako 3035 0028 11 0281141038 kontuan.



'Al amanecer seguir soñando' diska aurkeztuko du Doctor Deseok Leidorren. HITZA

'Goenkale' eta Doctor Deseo izango dira asteburuan, Leidorreko oholtzan

Topic zentroan Mariona Masgrau omenduko duen erakusketa inauguratuko dute

Itzea Urkizu

Tolosako Leidor aretoko oholtzak musikazaleen nahiz antzerkia gustuko dutenen begiradak bilduko ditu asteburuan, *Goenkale, markesaren erretratu* antzezlanarekin eta Doctor Deseo musika taldearen emanaldiarekin.

Gaur, 20:30etik aurrera, *Goenkale, markesaren erretratu* ikusgai izango da Leidorren. 18 urte bete ditu aurten, Euskal Telebistan marka guztiak hautsi dituen telesailak, eta Glu Glu ekoizpen etxearen arabera, «ikus-entzuleei esker ona adierazteko bidea» da antzezlan. Horrela beraz, Goenkale zuzenean ikusteko aukera eskainiko dute aktoreek: «Horixe da egitasmo honen xedea».

Sei aktore ariko dira eszenatikian, guztiak telesailen aritutakoak, eta 18 urteek eman dutena obra batean txertatuko dute; arduradunek «egitasmo zirraragarria» dela nabarmendu dute. Gainera, telesailak bere-bereak dituen intrigaz nahiz maitasun istorioez gain, barrea eragingo duten pasarteak gaineratu dizkiote obrari, eta ikus-entzuleentzako ezustekoren bat prestatu dute.

Bihar, berriz, musikari eskainiko diote tartea Leidorren, Doctor Deseo talde bilbotarraren kontzertuarekin. 21:00etatik aurrera, *Al amanecer seguir soñando*, beren hamabigarren eta azken lana aurkeztuko dute Tolosan, beren obran hain ohikoak diren maitasun, sentsualitate nahiz ironiaz beteriko abestiek.

Bertako musika entzungai

Gaur bertan, bi euskal talderen musika doinuaren entzungai izango dira Bonberenean: Eratu eta Enkore.

Urriko zine egitarauko bonuak salgai izango dira hilaren 15era bitarte

Eratuk duela urte bete inguru grabatu zuen diskoa Bonberenean bertan, rock eta metal doinuez. Enkore, berriz, rock talde bilbotarra da, eta aurtengo Gaztea maketa lehiaketan epaimahaiaren saria jasota, lehenengoz ariko dira Bonbereneako oholtzan. 22:30ean hasiko dira kontzertuak.

Bihar ere ez da musikarik faltako, ordea, eta punk eta rock doinuak entzungai izango dira Bonberenean, ordu berean, Rat-zinger eta Porko Bravo taldeen eskutik.

Zinemazaleen zita

Urria hasi berri den honetan, Leidor aretoko zinema saioetarako bono berriak ere salgai izango dira, datorren urriaren 15era bitarte.

Horrela beraz, igandean bertan, *Tadeo Jones* ikusteko aukera izango dute gaztetxoek, 17:00etan, eta 19:30ean nahiz 22:00etan, berriz, *A Roma con amor* filma proiektatuko dute helduentzat. Pelikula bera, astelehenean eskainiko dute 20:30ean.

Guztira, hamaika pelikula ikusi ahal izango dira, zine bonuarekin: *A Roma con amor*, *Amor bajo el espino blanco*, *Si de verdad quieres*, *Mátalos suavemente*, *Casa de tolerancia*, *Zuloak*, *Una vida mejor*, *The deep blue sea*, *El Fraude*, *Lo Imposible* eta *El abrazo de los peces*.

Mariona Masgrau omenduz

Bihar inauguratuko dute, Topic zentroko hamargarren erakusketa: *Mariona Masgrauren artea. Bidaia pedagogikoa, txotxongiloen mundura*.

Titirijarekin harreman estua izan zuen emakume honek, eta 2007an zendu zen; haren semeak amaren ondare osoa Topic zentroari eman zion, eta erakusketa hau antolatzea pentsatu dute, 110 piezarekin. Martxoaren 10era bitarte zabalik izango da.

• tolosa@hitza.info

Genero indarkeriaren aurkako erantzuna hazteko bilera

Berdinbideko koordinakundea sortu nahi du Tolosako gizarte eragileekin nahiz herritarrekin

I. Urkizu

Parekidetasunaren aldeko eta genero indarkeriaren aurkako gizezkoen Berdinbide elkarteak, genero biolentziaren aurrean herritarren erantzun zabalagoak ematea lortzeko koordinakundea sortu nahi du. Bileran antolatuko dute horretarako, urriaren 10ean, 20:00etan, kultur etxean.

Berdinbideko kideen ustez, Tolosan, «oso erantzun eskasa» ematen dute herritarrek, emakume bat erailtzen dutenean: «Ez genuke horregatik bakarrik protesta egin beharko; emakumezkoa biktima den edozein tratatu txar nahiz indarkeria ere salatu beharko genuke».

Horrela, beraz, mota guztietako elkarte, sindikatu, alderdi politiko, elkarte nahiz gizarte eragileekin harremanetan jartzea erabaki du Berdinbideko, egoera honen inguruan hitz egin eta «denon artean erantzun egoki bat aurkitzeko». Bilerara bertaraturako guztien artean herritarren parte-hartzea eta erantzuna handiago izatea posible den ikusi nahi dute horrela, herritarrei deialdiak egingo dizkien koordinakundea sortuz».

• tolosa@hitza.info

Iturriza elkarteko Udazkeneko Jokoen irabazleak

I. Urkizu

Iturriza jubilatuen elkarteko Udazkeneko Jokoa finalak jokatu zituzten, eta musean, tutean nahiz tokan jokaturako norgehiagoketatik txapelidunak atera dira jada.

Horrela, musean Juan Aristondok eta Juan Bautista Aranzabek osatutako bikotea izan zen nagusi. Tutean, berriz, Jose Telleria eta Romualdo Calvok irabazi zuten finala. Azkenik, toka txapelketan, Jose Manuel Ortizek eskuratuko duen garaipena.

• tolosa@hitza.info



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Berdintasun Planaren bigarren ikasturtea hasi dute Bidegoianen eta Albizturren

Helduekin, gazteekin eta eskoletan hainbat egitasmo jarri dira abian berdintasuna ardatz hartuta

Imanol Garcia Landa

Abian da Saiaz Mankomunitatean eratu den Berdintasun Planaren bigarren ikasturtea. Aurreko ikasturtean bezala, hainbat alorretan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko egitasmo prebentiboak jarri dituzte martxan Bidegoianen eta Albizturren. Hala, helduekin kafe tertuliak antolatu dituzte, eskoletan hezkidetzaren proiektua eta sexu heziketa, eta gazteekin ere gaia landuko dute, taldeka zein norbanako aholkularitzaren bidez.

Elena Rikondo gizarte laguntzaileak esan duenez, «gaia ez da lantzeko erraza. Esfortzu handia egiten ari gara, besteak beste diru laguntzak lortzeko, egitasmo prebentibo hauek martxan izateko. Izan ere, uste dugu merezi duela



Albizturren aurreko ikasturtean egindako tertulietako bat. HITZA

gai hau lantzea. Luzera begira egiten den lana da, eta emaitzak ikusteko ere denbora behar da». Prebentzioari garrantzia handia ematen dio Rikondok: «Aste honetan EAEko fiskal nagusiak delitu kopuruei buruz hitz egin du. Bada, oraindik elkarrekin bizi ez diren bikote gazteen artean handitu egin da genero indarkeriako delitu kopurua».

Helduekin egiten diren kafe

tertuliak Ana Elozegi psikologoak eta berdintasun gaietan adituak gidatzen ditu. Albizturren hil honetako 17an eta azaroaren 21ean izango dira hurrengo tertuliak, 15:00etan, udaletxean. Bidegoianen hilaren 11n eta azaroaren 8an izango dira, 14:30ean, erabilera anitzeko gelan. Gizarte zerbitzuetatik saioetan parte hartzeko deia egiten diete herritarrei.



Rikondo, Manterola, bisitari kubatarrek eta zentroetako erabiltzaileak. HITZA

Kubatik bisita jaso dute Saiaz Mankomunitatean

I. Garcia Landa

Bidegoiango eta Errezilgo eguneko zentroan bisita berezia izan dute aste honetan. Kubatik hiru pertsona etorri dira, Euskal Fondeko gonbidatuta, landa inguruko zentroak ikustera eta bertakoekin esperientziak partekatze- ra. Kubako talde hori hainbat esperientzia ikusten dabil Gipuzkoan barrena.

Saiaz Mankomunitateko Elena Rikondo gizarte laguntzaileak

azaldu duenez, «beraien lana oso interesgarria iruditu zait baliabideak era anitzean erabiltzen dituztelako. Gure zentroek ere egoera desberdinak dituzten pertsonen atentzioa zuzentzen diete; Kubatik etorritakoek herriko beste talde eta eragileekin egiten diren programak oso gustuko izan zituzten».

Bileran ere Arritxu Manterola Gipuzkoako Foru Aldundiko Dependentsia saileko zuzendaria izan zen.

Jai giroan sartuko da gaur Amezketako Ugarte auzoa

I. Garcia Amezketak

Bihar hasi eta igandera arte Amezketako Ugarte auzoan Errosarioko Amaren festak ospatuko dituzte, azuko elkarrekin antolatuta. Biharko ekitaldi garrantzitsuena herri afaria izango da, Ugarteko gutuziekin, hau da, mondejo-zopa, mondejoa eta ardi gisatuarekin. Ez da musikarik faltako afaldu eta gero, eta trikitilarien atsedendian toka txapelketa egingo dute.

Larunbatean haurrei zuzendutako hainbat ekitaldi antolatu dituzte: gazteen pilota partidak,

puzgarriak, zaldiekin ibilaldiak eta txokolate beroa. Gauean zahagi ardoa eta trikitilariak izango dira. Igandean ospatuko dute Errosarioko Amaren Eguna. Meza nagusiaren ondoren, txakolina dastatzea izango da. Arratsaldean herri kirolak egingo dira eta ondoren auzotarrek inguruetxo dantzatzeko dute. Festei amaiera emateko, sagardo dastatzea eta Ugarten hainbat hamarkadetan hutsik egin ez duten trikitilariak: Laja eta Landakanda. Sagardo dastatzearekin batera Akelok guraso elkarrekin zozketa egingo du.

↓ Egitaraua

URRIAK 5, GAUR

- 20:30. Suziriak, kanpaiak eta poteoa trikitilariekin.
- 21:00. Herri afaria. Ondoren, Ostolaza eta Andonegi trikitilariak. Atsedendian, toka txapelketa.

URRIAK 6, BIHAR

- 11:00. Gazteen pilota partidak.

- 13:00-19:00. Haurrentzat puzgarriak. Arratsaldean Ugarten zehar zaldiekin ibilaldiak egiteko aukera. Txokolate beroa ere banatuko da.
- 21:00. Zahagi ardoa.
- 22:30. Ansoregi eta Larrañaga trikitilariak.

URRIAK 7, ETZI

- 11:15. Meza nagusia. Ondoren, txakolina dastatzea Laja eta

Landakanda trikitilariak alaiturik.

- 17:30. Herri kirolak. Aizkoran, Jon Irazu eta Ugaitz Mugerza, eta harri-jasotzen, Unai Lertxundi eta Urtzi Telleria. Ondoren, inguruetxo dantzatzeko dute auzotarrek.

- 20:30. Sagardo dastatzea, Akelok guraso elkarrekin zozketa, eta jaiak amaitzeko Laja eta Landakanda trikitilarien emanaldia.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza Hitzaren harpidedunentzat

30 €

Udazken honetan jantzi HITZArekin!

- Kirola egiteko aproposa den txalekoa
- Barrikaldean fibra mikropolarra
- Paseatzeko aproposa

Egin eskaria:
Telefonoz: 943 65 56 95
edo gerturatu HITZAren Tolosako egoitzara: Araba etorbidea 5, behea

Zortzi argazki finalistetatik hiru politenak aukeratzeko garaia da

Harpidedunek urriaren 12a arte dute gehien gustatzen zaien irudia aukeratzeko aukera; HITZako produktuak zozketatuko dira

Urriaren 17ko egunkarian argitaratuko dira lehiaketako hiru argazki irabazleak

Erredakzioa

HITZaren Udako Argazki Lehiaketa bukatatzen dago. Egunkariko epimahiak aukeratu dituzte jada zortzi argazki finalistak eta orain harpidedunen txanda da. Harpidedunek gehien gustatzen zaien argazkia aukeratu behar dute eta zenbakia eta harpidedun kodea eman behar dituzte *thargazkiak@hitza.info* helbidera idatzita edo 943 65 56 95 telefono zenbe-

kira deituta. Harpidedun gurtien artean HITZako produktu sarta bat ere zozketatuko da, eta hiru argazki irabazleak, eta bai harpidedun sarrituaren izena urriaren 17ko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAn ikusi ahal izango dira.

Sariak

Hiru argazki irabazleentako egileek sari bikainak eskuratu ahal izango dituzte. Lehen saridunak


Elantxobeko (Bizkaia) Ogoño mendia landetxean bi pertsonentzako bi gauko egonaldi eskuratzeko du; bigarren saridunak Tolosaldo Pibotokafetaren eskutik argazki album analogikoa irabaziko du; eta hirugarren saridunak Tolosaldo Onue erretsegi bi pertsonentzako otordua dastatu ahal izango du.

Argazkiak, webgunean

Gogoratu bai lehiaketan parte hartzeko bidaltzeko argazki guztiak, eta baita argazki finalistak ere, *tolosaldea.hitza.info* webgunean ikusi daitetzeko.

Finalistak

1. **Argazkia**, Pello Aranburu bi-labonarrak Erioxako paraje eder honi ateratako argazkiaren hiru parte.
2. **Argazkia**, Leire Garmendiak Finlandian, Helsinkin, ezkontza batan ateratako irudia bidali du.
3. **Argazkia**, Inaki Ulazia Frantziako Alpe inguruan bildi zen: «Lac Blanc kuesten da Mont-Blanc duelaik parez pare. Benetan paisaia ederra».
4. **Argazkia**, Urko Ormaetxeak Vietnamen, Quan Lan nrian, ateratako argazkia bidali du: «Ilunabarrean zuhaitzen ista kuesten da uretan, atzean itsasoa eta ondiko hila kuesten direla».
5. **Argazkia**, Arantxa Otegi Norvegiaren zenuan: «Bertan natura da nagusi; dena berdea eta ura alde guztietatik».
6. **Argazkia**, Aitzoi Doyharzabali: «Alpetan uda guztia mendia gidari moduan lanean aritu ondoren guretzako ere denbora aurkitzen dugu. Argazkian Rochefort-Grandes Jorasses ibilaldia zi ondu geratu gabe egindako eskialda ederra, atzean Mont Blanc ikusten delarik, eta alde bananera 1.000 metrotik gorako amildegia».
7. **Argazkia**, Oriatz Goenaga: «Aurten Pirinio aldean bildi gara, Aiguestortes | Sant Maurici-ko parkean. Bertako antza eta lakuak txundituta utzi gaituzte guri zein beste bistariek, eta urezkoa edo kristalezkoa zen kuestera joan zen familia hau harrapatu genuen argazkian».
8. **Argazkia**, Daniel Leundak Triokala (Bolivia) jaiakua Eguzkiaren ifrian ateratako argazkia bidali zuen.



Tolosan etxe adosatuak salgai: eguzki-sua, 3ku gela, bi txanogak, komuna, egongela-argazki hondoa, sukalkoa, bi autoerentzako garajea, hotoa, jardina eta trasteroiak.

Interesak, deitu 678 267657
www.ozarceko.com

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZaren harpidedun kalaren 30k urteren 20k arte jaso eta guzti, kalazabal jeneratzen du.

OPARI

hitza

irabazlea
2 sarrera

LAGUN ARO GBC Asefa Estudiantes
saskibalo partidu

Urriak 7 | 19:00etan
18.00etan
Donostiako Euzbur

Inaxio Iguaran Telleria (Villabona)
*Sarrerak jasotzeko, gaur HITZaren Tolosaldo egotzatik pasa

Herrirak bigarren eskuko elkartasun azoka eta eskulan erakusketa antolatu ditu

Zizurkil Goiko Intxaurre pilotalekuan eta Iriarte kultur etxean jarriko dituzte elkartasun azoka eta erakusketa

Asier Imaz Zizurkil

Preso eta iheslariaren aldeko herri mugimenduak, Herrirak, Zizurkil elkartasun azoka eta erakusketa antolatu ditu. Bigarren eskuko elkartasun azoka gaurtik igandera arte egongo da zabalik, eta eskularen elkartasun erakusketa, hilaren 7tik 14ra. Mahai gainean jarriko duten material guztia herritarrek emana dela aitortu dute Herriratik, eta izan duten erantzunagatik, eskerrak eman nahi izan dizkie guztiei. Dena egongo da salgai, bai bigarren eskuko materiala eta baita erakusketak eskulanak ere. Hauetakoz batzuk, eskualdeko presoek eginak dira. Herriratik, bertara joateko gonbita zabaldu dute.



lazo elkartasun erakusketa «oso arrakastatsua» izan zen. A. IMAZ

↓ Ekimenak

BIGARRREN ESKUKO AZOKA

- **Egunak:** Hilaren 5etik 7ra, hau da, gaur, bihar eta etzi.
- **Orduetgia:** Gaur arratsalde guztia, eta bihar eta etzi, goizez nahiz arratsaldez.
- **Lekua:** Zizurkil Goiko Intxaurre frontoian.
- **Materiala:** Jostailuak, arropa, apaingarriak...

ESKULAN ERAKUSKETA

- **Egunak:** Urriaren 7tik 14ra.
- **Orduetgia:** Igandean 12:00etatik 14:00etara; astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara eta larunbatean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.
- **Lekua:** Zizurkil Goiko Iriarte kultur etxean.

Itsaso Leunda bigarren gelditu da Espainiako triatloi txapelketan

Distantzia luzeko proba amaitzeko 10 ordu eta 20 minutu behar izan zituen Hernialdeko triatloilariak

Erredakzioa Hernialde

Espainiako distantzia luzeko triatloi txapelketa jokatu zen irailaren 30ean Caellan, Hernialde Katalanetako kostan. Itsaso Leun-

dak bigarren postua eskuratu zuen bertan, eta goi mailako kirolaria dela erakutsi zuen berriro ere.

Distantzia luzeko proba izaki, triatloilariak 3.800 metro egin behar izan zituzten igerian. Uretara 08:30ean sartu ziren. Irteeran lehenak gizonezkoak izan ziren, eta ondoren, bi minutura, emakumeak sartu ziren uretara. Igerian ia lau kilometro egin ondoren, bizikleta gainean jarri ziren guztiak, 180 kilometroko distantzia osatze-

ko. Azken proba, korrikakoa, ez zen arinagoa izan, maratoni bat egin behar izan baitzuten, hau da, 42,2 kilometroko distantzia.

Amaitzea nahikoa sari den kirol honetan, podiumean egoteko indarra izan zuen Itsaso Leunda hernialdetarrak. Leundak 10 ordu eta 20 minutu behar izan zituen hiru lasterketak amaitzeko. Denbora bikain honekin, Espainiako distantzia luzeko triatloi txapel-dunorde bilakatu zen, Gurutze Frades bikaitarraren atzetik.

→ Laburrak

'Erraustegiari ateak itxiz' dokumentala, gaur

ANOETA > Errauskailuaren inguruko bideo emanaldia antolatu dute Anoetako Gaztetxean, gaur, 17:30ean. *Erraustegiari ateak itxiz* izeneko dokumental-lak ordu eta laurdeneko iraupena dauka. Gazte asanbladatik azaldu dutenez, «jende guztia gonbidatzen dugu bertara, errauskailuaren atzean dauden interes eta negozio guztiak bisitaratzen baititu bideo honek».

Egur festa egongo dute bihar, egun guztian zehar

LARRAUL > Etxerako su-egurra zozketatuko dute bihar, hilak 6, Larraulen. Gaur arratsaldean ekarriko dute egurra herrira, eta larunbatean, auzolanean, egurra pitatu eta pilak prestatzen hasiko dira. Elkarekin bazkaria egin ondoren, arratsaldean lanean jarraituko dute. Antolatzailen esanetan, ez dute jaia antolatzen inori su-egurra falta zaiolako, jai giroa jartzeko bai-zik.

Argazki lehiaketako epea hilaren 7an amaitzen da

ANOETA > Argazki lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 7an, igandean, amaitzen da. Antolatzailak argi utzi nahi izan dute gaia *Erretratuak* dela, eta honekin pertsonen erretratuak esan nahi dutela. Herritarrei oraindik lehiaketan parte hartzeko denbora badutela jakinarazi diete.

KZguneko hileko lehen tutoretza eguna, gaur

ADUNA > KZgunea urriaren 12an, 25ean eta 26an itxita egongo da. Tutoretza egunetan lehena, aldzia, gaurkoa izango da, eta hileko bigarrena eta azkena, 19an. Orduetgia ondo-ongoa izango da: 09:00etatik 13:00etara.

Euskal Jaian egongo den bazkariko txartelak salgai

ANOETA > Euskal Jaia urriaren 14ean egongo dute Anoetan. Egun horretako bazkaria frontoian izango da, eta txartela erosteko azken eguna urriaren 7a, igandea, da. Tiketak salgai herriko taberna guztietan daude, eta soberan geldituz gero, egun berean egongo den azokan egongo dira salgai, garestiago bada ere. Euskal Jaia antolatzen lan handia dagoenez, antolatzailak herritarrei esku bat botatzeko eskatu diete. Itzuliz dagoen zerrandan izena emanaz.

Borroka-arte ikastaroa antolatu dute Olaederran

AMASA-VILLABONA > Olaederra Kiroldegiko bazkideek borroka-arte ikastaroa egiteko aukera izango dute, doan. Olaederra Fight Klubak antolatu du ikastaroa, eta udalaren laguntza izan du. Hiru saio egongo dira: gaur, urriaren 19an eta azaroaren 2an, 18:00etatik 21:00etara. Hala, MMA ikastaroak—Artes Marciales Mixtas deritona—hiru saio izango ditu: urriaren 5ean, 19an eta azaroaren 2an. Horiek guztiak 18:00etan hasi eta 21:00etan amaituko dira. Ikastaroan izena emateko, 654 43 29 96 zenbakira deitu edo *olaederrafightclub@hotmail.com* helbidera idatzi behar da.

Erromeria antolatu dute bihar, 19:00etatik aurrera

ASTEASU > Ebia kultur taldeak erromeria antolatu du Asteasun, hilaren 6an, bihar. Udaltzeko arkupean 19:00etan hasiko dira trikitilariak giro berotzen, eta herritarrei, eta oro har, nahi duen guztiari, bertara agertzeko eskatu die Ebia kultur taldeko kideek. Trikitilariak herritarrek izango direla ere argitu nahi izan dute, eta ekimenaren helburuaz hitz egiterako garaian, usadioa aipatu dute: «Aitzina-ko erromeria hura berreskuratu nahian antolatu dugu larunbateko jaia».

● Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

Antton M^a Imaz Zubeldia



Urak dakarrena urak daroa zuk emandakoa gurekin gelditzen da



Mila esker saharar herritaren alde egindako guztiagatik
Tolosaldean, 2012ko urriaren 5ean

Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea materia organiko guztia herrian bertan kudeatzeko konpostagailuak jartzen ari da; urtebetean eskualdeko hamabi herritan martxan izango da.

Norbera bere organikoaren kudeatzaile

Iñigo Terradillos

Zero zabor filosofia ardatz hartuta, hau da, «zabor gutxiago sortu eta sortzen dena hobekiago sailkatzea helburu hartuta», konpostajea oinarri duen plangintza abiarazi du Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak. Oraintxu hasi da, eta urtebeteren buruan eskualdeko hamabi herritan konpostajea martxan egotea lortu nahi dute.

Hamabi horiek hainbat ezaugarri dituzte, eta biztanle kopurua da horietako bat. Hala, batzuetan, txikienetan, errazagoa da konpostajea herri osora hedatzea. Horiekin, hain zuzen, hasiko dira lehendabizi ekimena martxan jartzen. Hurrengo astean, esaterako, Orendainen formakuntza emango diete herritarrei, etxez etxe azalpenak emanez. Orendaiekin batera lehentasuna duten herriak Oresa, Altxo eta Elduain dira.

Herri txiki hauetako egoeraren berri izate aldera, Orexan karakterizazio bat egin berri dute. Astebetean errefusako kontenedoretan herrian jasotako hondakinak bildu, eta sailkatu egin zituzten. Horrela ikusi ahal izan dute zen-

bat organiko sortzen duten, eta material birziklagarritik zenbat joaten den errefusara. «Egungo egoera islatzen duten datu horiek jendaurrean aurkeztuko ditugu, izan ere, askotan askoz hobeto gaudela uste dugu, eta benetako egoera zorritzarekin bestelakoa dela ikusi ahal dute herritarrei», adierazi du Eneko Maioz mankomunitateko ordezkariak.

Karakterizazioa bost edo sei hilabete barru errepikatuko dute, datuak konparatze aldera; «herri hauetan bi hilabete barru ezarrita egongo da konpostajea osotasunean, eta karakterizazioa egin, jakin ahal dugu organikoak zirkuitutik kentzea lortu den eta birziklapen maila igo den».

Sistema mixtoa

Gainerako herriekin beste eritimo batean garatuko dute ekimena. «Biztanle kopuru handiagoa izanik, ezin da herri txikietan bezain azkar egin», dio Maiozek. Horietan, gainera, sistema mixtoa erabiliko dute, hau da, «banakako konpostagailuak eta auzokoak jarri».

Lizartzan, adibidez, pasa den larunbatean herritar guztiei zuzendutako ikastaroa eman zuten konpostajearen inguruan. «He-



Astebeteko errefusa jaso zuten Oresan, eta ondoren, guztia sailkatu. I.T.

rrian taldean edo auzoka egiteko bi puntutan jarri dituzte konpostagailuak, eta 37 familiak erabiliko dute, banaka, berriz, 24 familia hasiko dira». Aurrerago banakako formakuntza emango zaie herritarrei. «Lehendabizi taldeak ari gara osatzen boluntarioekin, horiekin ikastaroa eman, eta ondoren, etxez etxe jarraipena egitea da asmoa».

Bide ugari, helburu bera

Ezaugarriei begiratuta desberdinak dira, eta horregatik ez dute bide bera erabiliko, baina helburua bera da denentzat, organiko herrian kudeatzea. «Konpostagailuak ezarri, organikoak zirkuitutik ateratzea lortu nahi dugu, eta horrekin batera, kontzientzia sortu herritarrengan, ahalik eta errefus gutxien sortu eta birziklapena areagotzeko».

Herri txikiagoetan konpostajearen bidea aukeratu dute. «Urtebeteko plangintza horretan sarritan ere konpostajea erabiltzeko hautua egin dezakete, eta manko-



Formakuntza ikastaroa izan zuten Lizartzan, iragan larunbatean. HITZA

munitateak lagunduko die, formazioan eta baliabideetan, esaterako», azaldu du Eneko Maiozek. Konpostajeaz gain, kasu batzuetan, atez atekoaren bidetik jotzea erabaki dute. «Bidea bata edo beste izan, eskualdeko herri guztien helburua bera da, zabor gutxiago sortzea eta ahal den egokien sailkatzea». Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariak dio, «zailta-

sunak» izango direla helburu horretara iristeko bidean, «baina, guztiak bide beretik bagoaz lortuko dira helburuak lehenago ala beranduago».



■ **Bideoa.** Ikus Oresa eginiko karakterizazioaren inguruko ikusentzunezkoa.

Villabonako Udalak Mintzalaguna jarri du martxan

Kalean euskaraz hitz egiteko konfiantza hartzen laguntzea du helburu ekimenak; iaz «arrakastatsua» izan zen

I. Terradillos Amasa-Villabona

Villabonako Udaleko Euskara zerbitzuak Mintzalaguna egitasmoa jarri du martxan aurten ere. Euskara ikasten ari direnei kalean hitz egiteko konfiantza hartzen laguntzea du helburu ekimenak.

Euskara zerbitzutik adierazi dutenez, aurreko urteetako espe-

rientzia «arrakastatsua eta positiboa» izan da, eta hori ikusita, aurten ere jarraipena emango zaio. Bada, urrian zehar izango dute izena emateko aukera egitasmo honetan parte hartu nahi dutenek. Horretarako, Euskara zerbitzura jo behar da.

Beste urteetan bezala, Villabonako Udalak %75 arteko diru laguntza emango du euskara ikastaroetan matrikulatuta dauden ikasleentzat. Diru laguntza jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituztenek, eta horrez gain, ikasturte osoan zehar Mintzalaguna egitasmoan parte hartzen duten %85 arteko diru laguntza jaso ahal dute, aurten ere.

Euskara ikasten ari direnei, edota gaur egun ikasle izan gabe, euskaraz hitz egiteko ohitura eta erraztasuna landu nahi duten herritarrei dago zuzendua Mintzalaguna. Kalean hitz egiteko konfiantza hartzen laguntzea du xede ekimenak, eta horretarako, hiru laguneko taldeak osatuko dira. Talde hauetako kideak konpromisoa hartuko dute astean behin ordubetez euskaraz elkarrekin aritzeko.

Era berean, egitasmoan parte hartzeko laguntzaile euskaldunak behar direla ere jakinarazi du udalak. 943 69 35 01 edo euskara@villabona.net-en lor daiteke informazio gehiago.



2008an jarri zuten abian. Iaz 22 lagunek hartu zuten parte. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: **BERTAKO** HEDABIDEAK

Galtzaundi euskara taldea

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C.I.; Korreo kalea, 20.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Santamaria, I.; Nafarroa Etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Santamaria, I.; Nafarroa Etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L.; Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Anoeta.** Urriaren 14ean, Euskal Jaia ospatuko dute. Egun horretan bazkaria frontoian izango da, eta txartelak salgai jarri dituzte herriko tabernetan. Txartelak erosteko azken eguna urriaren 7a, igandea, da.
- **Asteasu.** Asteasuko Ebia kultur taldeak erromeria antolatu du udaletxeko arkupetan. Bihar, hilak 6, larunbata izango da, 19:00etatik aurrera. Herriko trikitilarien eskutik, nahi adina dantza egiteko aukera izango da.
- **Larraul.** Bihar, hilak 6, Etxerako su-egurra zozketatuko dute. Ostiral arratsaldean ekarriko dute egurra herrira, eta larunbatean, auzolanean, egurra pitzatu eta pilak prestatzen hasiko dira. Bazkaria ere egingo dute.
- **Villabona.** Malkar aisialdi taldearen 25. urteurrena dela eta, urriaren 20an jai eguna antolatu dute. Bazkaria ere egingo dute eta txartelak bihar eta hilaren 10ean erosi ahal izango dira 10 euroren truke Malkarren egoitzan, 18:00etatik 20:00etara.
- **Tolosa.** Hauteskundeetako bozka posta bidez bideratu nahi duten herritarrei laguntza eman nahi die, EHBilduk. Horretarako, Tolosako alkartetxera zuzendu behar da: astelehenean, asteazkenean eta ostiralean 11:00etatik 13:00etara, eta asteartean eta ostegunean 16:00etatik 18:00etara. Urriaren 10a izango da azken eguna.

AZOKAK

- **Belauntza.** Igandean, Belauntzako herriko plazan azoka egingo dute. Herriko nekazari eta artisauek euren produktuak aterako dituzte. 10:30etik 14:00etara izango da.

- **Tolosa.** Berdura plazako merkaturia indartu asmoz, larunbatean, piperrak erreta saltzera etorriko da, Antton Arroniz nafarra.
- **Tolosa.** KM 0 egitasmoaren barruan, Botarri Jatetxeko Txemari Esteban sukaldaria ariko da Onddo naturalekin egindako tartaletak prestatzen. Bihar, larunbata, 12:00etan banatuko dituzte mokadutxoak, Zerkausian.

MUSIKA

- **Tolosa.** Bihar, hilak 6, larunbata, Doctor Deseo taldeak kontzertua ekiniko du Leidor antzokian. 21:00etan hasiko da. Sarrerak erosteko aukera dago, www.kutxasarrerak.net webgunean edota Leidorreko leihatilan.
- **Tolosa.** Bonberenean, gaur, 22:30ean, Eratu eta Enkore taldeen kontzertuak izango dira. Bihar, hilak 6, ordu berean, Ratzinger eta Porko Bravo taldeak igoko dira Bonbereneako ohol-tza gainera.

JAIAK

- **Ugarte.** Gaur 20:30ean hasiko dituzte jaiak, eta igandea bitartean luzatuko dira. Egitarau osoa bosgarren orrian ikus daiteke.

ARTE ESZENIKOAK

- **Tolosa.** Goenkale, markesaren erretratu antzezlan izango da, gaur, 20:30ean, Leidorren.
- **Tolosa.** Marlona Masgrauren artea. Bidaia pedagogikoa, txo-xngiloen mundura, erakusketak, gaur, 20:30ean, Leidorren.

ZINEMA

- **Tolosa.** Igandean, 17:00etan, *Tadeo Jones* haur zinea eskainiko dute. *A Roma con amor* filma izango da, 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ikuslearen egunean, film bera botako dute, 20:30ean.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Box.A elkartearen *Pornografia* eta Tolosa Gasa eta Tolargik 2013ko egutegia osatzeko erabiliko dituen argazkien erakusketa dago, Aranburu Jauregian.

KIROLAK

- **Tolosa.** Usabal kiroldegian, bihar, hilak 6, hainbat kirol eskaintza izango da. Goiko kantxan: 10:00etan, Junior nesken saskibaloia izango da. T. Aralar taldea BKL-ren aurka ariko da. 12:00etan, eskubaloia izango da, Tolosa taldea, Leizaranen aurka. 16:00etan saskibaloia partida izango da Bide Bide Donosti eta Padura taldeen artean. 18:00etan, Laskorain eta Gora CD areto futboleko taldeen partida izango da. Beheko kantxan: Saskibaloia partida jokatuko dute T. Aralar eta Atletico San Sebastianek, 12:00etan. 18:00etan, Laskorain eta Pinturas Nuñez. Aldiz, futbol zelaian, 09:30ean, Tolosa CF eta Intxurrek infantil mailako partida jokatuko dute, eta 11:00etan, Tolosa CF eta Aretxabaleta ariko dira. 17:30ean, emakumeen junior mailako partida jokatuko da.
- **Tolosa.** Berazubini, bihar, hilak 6, jubenilen Euskadiko Ligako futbol partida jokatuko dute, 16:30ean. Tolosa CF eta Aretxabaletaren artekoa izango da.

Agurrak



Zorionak Txikito!

Xagu txikia ez ote zaigu hasi zahartzen...jesukristoren hamaiketakoa nahi dugu!

AGURRAK
 943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
 urrezko ezteiak
 ezkontzak
 jaioberriak
 jaunartzeak...

agurrak

Elketa Jatetxea

- ◆ **Eguneko menua** (asteleheneratik ostiralera)
- ◆ **Plater konbinatuak** (ostiral, larunbat eta igande gauetan)
- ◆ **Menu berezia** (larunbat eta igande eguerditan)

San Miguel bailara, 2 • Hernialde •
 Erreserba egiteko: 943 65 21 16
www.elketa.com